

2021EKO MAIATZAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hogeita bat

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

ETORRI GABEA: ANGEL REDONDO FERNANDEZ (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

IDAZKARIA: Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak eta Aitziber Yurrebaso Irazustabarrena itzulpen lanak egiten.

Alkate jaunak proposatu du eskaera eta galderen atala baino lehen premiazko puntua sartzea, hain zuzen ere, aurreko plenoan onartutako eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko plegua bertan behera uztea.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

Beraz, eskaera eta galderen atala baino lehen tratatuko da gaia.

1.- AURREKO AKTA. 2021-05-06

Aurreko aktaren berri eman ondoren, Eva Alvarez Atanes andreak esan du aktan ondorengo zuzenketa egin beharko litzatekeela: "...de los trabajadores a subrogar (14), cuatro no llegan a la jornada del 100%...", esaten duen tokian ondorengo esan behar du: "...de los trabajadores a subrogar (14), sólo cuatro llegan a la jornada del 100%..."

Horren ondorioz, aktan aldaketa hori eginda, aho batez onartu da .

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- KREDITUEN ALDAKETA. 7 ZENBAKIKO KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2021CRAD0007

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

"GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontusaila Partida Presupuestaria	Kontzeptua Concepto	Kredituak Créditos		
		Egungoak Actuales	Aldaketa Modificación	Behin betikoa Definitivo
0390.214.133.10.01	Ezbeharrak/Siniestros	6.000,00	12.000,00	18.000,00
0390.211.336.00.01	Eraik. Iraup:Igartza mon. Multzoa/ Mant. Edif.: Conj. Monum. Igartza	25.000,00	10.000,00	35.000,00
0350.210.135.00.01	Mariaratsen luizia/ Desprendimiento Mariarats	3.706,00	62.181,63	65.887,63
0390.211.337.30.01	Gernika pas. estalk. ikusk. garbitu/ Rev., limp. cubierta frontón Pº Gernika	0,00	18.000,00	18.000,00
0390.211.920.00.02	Etxebizitza, lokalen jabekide-kuotak/ Cuotas coprop. viviendas y locales	25.000,00	10.000,00	35.000,00
0390.211.920.00.03	Eraik. Iraup.: etxebizitza, aretoak/ Conserv. Edif.: viviendas y locales	50.000,00	25.000,00	75.000,00
0261.212.340.20.01	Instalazioak: eguzki panelak/ Instalaciones: paneles solares	1.000,00	15.000,00	16.000,00
0350.601.153.20.10	Azp. eta urb.: Isabel Olano parkea/ Inf. Y urb.: parque Isabel Olano	00,00	15.000,00	15.000,00
0390.609.337.30.01	Ezkiagako haur parkea/ Parque infantil de Ezkiaga	0,00	15.000,00	15.000,00
0390.210.172.00.01	Ingurune degradatuen garbiketa/ Limpieza entornos degradados	0,00	30.000,00	30.000,00
0270.221.311.00.07	Animalien osasuna/ Sanidad animal	6.500,00	6.000,00	12.500,00
0350.601.153.20.01	Azp. eta urb.: Oriamendi-Erauskin plaza/Inf. y urb.:Oriamendi-Erauskin	0,00	715.000,00	715.000,00
GUZTIRA / TOTAL		117.206,00	933.181,63	1.050.387,63

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu- sailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak
770.01	Gipuzkoako Urak: Oriamendi eta Erauskin plaza	208.157,16
870.01	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	725.024,47
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		933.181,63

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia aurkeztu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Algunos créditos y ase podían haber previsto antes. Ya dijimos que lo consignado para los paneles solares no era suficiente. Nos ha extrañado la limpieza de espacios degradados porque, al parecer, no es algo que viene de antes.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Jakitun ginan. Iaz gure aurrekontua onartzerakoan izan genituen limitazioak tarteko, helburua izan zen hainbat partida irekitzea jakinda gero proiektuak exekutatzeko kredituen handitzea beharko zela. Hau da horietako kasu bat, eguzki panelentzat 1.000,00 € aurreikusi ziren baina jakinda gutxi gorabehera 300.000,00 €ko inbertsioa izango zela. Proiektua ontzat jotzen denean partida irekitzen da ea aurrekontuan izaten ditugunean, kredituak beharretara doitzen dira. Aipatutako beste kreditu aldaketa horrekiko esan, Foru Aldundiaren dirulaguntza baten bidez degradatutako eremuak txukuntzeko aukera dago. Dirulaguntza hori eskatu dugu eta horretarako, kreditua ere aurreikusita egon behar da. Arrazoiak horiek dira.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “He hecho referencia a ello porque en su día ya nos posicionamos cuando se presentó el proyecto de presupuesto. Ciertamente modificaciones se tienen que hacer, pero realmente no es el presupuesto que aprobamos. No nos podemos posicionar en contra porque son gastos a realizar, pero estamos en contra del proceder.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aurrekontu itxia onartu behar da eta gerakina izateak bide ematen digu. Beste aukera izango litzateke, aurreikusi gutxi gorabehera behar dena, baina beste gastu batzuk egiteko aukera ez litzateke egongo. Kreditu aldaketa legez erabili daitekeen baliabidea da.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordeetan ere askotan kritikatu dugu funtzionatzeko modu hau, baina horri gehituko nioke batzordeak hartzen ari diren dinamika. Batzordetik gaiak pasatzea tramite hutsa izatea bihurtu dira zuentzat, inolako aurre-lanketarik gabe. Herritarren parte-hartzei begira lehen egindako salaketei orain gehitzen zaie oposizioari lan egiteko sortzen zaizkigun zailtasunak. Gu abstenitu egingo gara, batez ere, formagatik.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Batzordean Oriamendiko partida aipatu zenuen duen garrantziagatik, baina denok badakigu nola dagoen duela sei urte berritutako kalea. Orduan gastatu zen, gastatu zena eta orain ere, tamalez Udalak beste 500.000,00 € gastatu beharrean dago, zeren eta arazoa ez dago asfaltoan baizik eta asfaltoaren azpian. Honek bide ematen digu, dugun gerakina erabilita eta kreditu aldaketa eginda, momentu honetan beharrezkoa den obra bat egiteko. Bestela izango genukeen arriskua izango litzateke Oriamendi berritu ezin izana.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guk proiektua ez dugu zalantzan jarri. Esan duzu egiteko modu honek bide ematen diola baina berez bide ematen dionak da, hemen dagoen indar-korrelazioak. Legala da bai, baina gure ustez ez da zuzena. Beste modu batzuk ba daude eta asko dago hobetzeko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): Indar-korrelazioa aipatu duzu baina beste bat izanda ere, ekarriko genuke edo ekarriko zenukete osoko bilkura honetara kreditu aldaketa eta behar adina boto ez balitu izango, ondorioa izango litzateke hurrengo batzordean aurkeztuko den proiektua gauzatzeko modua ez izatea.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Etorri gabea: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

b.- 2021 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK. ERANSKINEN ALDAKETA. 2021EKBO0037

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA.- 2021 urterako Ordenantza fiskalak. Eranskinen aldaketa

COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 18. artikulua honako hau ezarri du:

2021ean, toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluko 3. atalaren arabera ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboek aplikatu ahal izango zaizkie.

Artikulu honetan aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izan ahalko dute.

Aipatutako eskumenaren baitan, Udaltzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

LEHENIK.- Ondorengo tasei buruzko eranskinak aldatzea adierazten den moduan:

1.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASAK

Zaborrak bildu eta tratatzeko zerbitzua.

2021eko ekitaldirako, %50eko hobaria ezartzea merkataritza eta zerbitzu sektoreko jardueren titularrentzat, beti ere jarduera burutzen duten helbidean JEZn alta emanda badaude, Covid19aren eraginez sortutako osasun-krisia arintzeko ezarri diren perimetro-itxieren ondorioz bereziki kaltetutako jarduerak izan direnez.

Hobariak, bere barnean hartzen du, "jendearentzako irekieraren etenaldian" egitate ezargarri gertatu ez izanaren hipotesia.

Hobaria 2. seihilekoari dagokion ordainketa epean gauzatuko da.

Hobaria subjektu pasiboak eskaera egin ondoren aplikatuko da, dokumentazio hau aurkeztuta:

- Jardueraren titularraren izenean betetako eskabidea, eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera.

- Jarduera alokatutako lokal batean egiten bada, maizterrak tasa ordaindu duela egiaztatu beharko da. Errentamendu kontratuaren bidez edo 2021eko lehen seihilekoari dagokion tasaren ordainketa maizterrak egin duela egiaztatuz.

Eskabidea aurkezteko epea: 2021eko uztailaren 19etik irailaren 15era.

Eskabidea eta erantsitako dokumentazioa honako esteka honen bidez egin ahal izango da:

<https://www.beasain.eus/bulego-birtuala-> helbideko TASAK ETA ZERGAK ataleko ZABOR TASAREN HOBARIA izapidearen bidez. Bertan zehazten den "Hobari Eskaera" eranskina atxikitu beharko zaio eskariari gainerako dokumentazioarekin batera."

2.- UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIARENGATIKO TASAK

Mahai eta aulkiekin bide publikoa okupatzeagatik.

2021eko ekitaldirako,% 50eko hobaria ezartzea aipatutako okupaziorako lizentzia duten jardueren titularrei, jarduera horiek mugatuak izan baitira, Covid19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz. Hobariak, bere barnean hartzen du, "jendearentzako irekieraren etenaldian" egitate ezargarri gertatu ez izana.

Hobaria ofizios aplikatuko zaie bide publikoa mahai eta aulkiekin okupatzeko lizentzien titular guztiei.

BIGARREN.- Hartutako erabakia G.A.O.ean, udal iragarkien taulan eta Lurralde Historikoko zabalkuntza handieneko egunkari batean argitaratuko da, jendaurrean egongo delarik 30 laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori iragan ondoren erreklamaziorik egon ez balitz, akordioa behin-betirako onartutzat joko da eta testu osoa G.A.O.ean argitaratuko da eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarren, 2.021eko urtarrilaren bateko atzeraeraginarekin.

Epe horretan erreklamazioak aurkeztuko balira Udalbatzak ebatzi beharko lituzke."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia aurkeztu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "kontra ezin gara azaldu laguntzak direlako. Baina inguruko hainbat herrietan hobaria %100ekoa da. Beasainen hori egiteko modua badagoela iruditzen zaigu. Badakigu bilerak egin direla eta batzuekin

adostasuna izatea ez dela iritsi, baina pentsatzen dugu urte oraindik gogorra izango dela eta badagoela marjena hobari hauek altuagoak izateko. Abstenitu egingo gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Inguruko herriak aipatu dira eta begiak jarri ditut Ordizia eta Lazkaon, gertuenak direlako. Ordiziak esan du tasa horietan %100eko hobaria aplikatuko duela, baina nik dakidanez momentuz ez da ezer aprobatu. 2020an bai batako eta bai besteak emandako dirulaguntzen lanketa egin dut eta zein kontzeptutan. 2020arekiko Ordizian kontsulta egin ondoren eta jasotako datuen arabera, biztanleko 217.000,00 €ko dirulaguntzak eskaini dituela merkatari eta ostalariei. Biztanleko 21 €. Aldiz, Beasainen ateratzen zait 440.000,00 € dirulaguntzak eta biztanleko 31 €, hau da, Ordiziak baino %48 gehiago. Lazkaoren kasuan, %100eko hobaria aplikatzea erabaki dute, baina momentuz lehenengo sei hilabeteari dagokionez. Bigarren sei hilabeteari dagokionez aztertzeko konpromisoa hartu dute. Iaz tasen hobariak aplikatzeko autoa egin genuen portzentai ezberdinetan. Momentuan egindako azterketa eta diagnostikotik hori ikusten guelako. “Berrabiarazi” programan murgilduak daude. Beraiek datu berrituak dauzkate, enpresa eta merkatarien beharrei buruz eta oraindik beraien lanketa amaitu ez badute ere ikusten da merkataritzan digitalizazio eta formakuntza beharra dagoela. Lanketa hori bukatzen denean denon eskura egongo da. Horretan ere tasetan hobariak emateaz gain formakuntza eta digitalizazioan gure aletxoak jarriko dugu herri bezala.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Oso oker ez banago Beasaingo egoera okerragoa izan da ostalaritzan denbora luzeagoan itxita egon delako.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai egia da, baina aurren dirulaguntza zuzenak jasotzen ari dira. 40 bat ostalariek jaso dituzte, itxita egon ziren epe horrengatik.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Lazkaon ez da bakarrik zaborra eta terrazagatik, toldoentzat, rotuloentzat, ura ere bai. Sei hilabete izango da, baina hobariak esparru gehiagotara iristen dira.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- GOIEKI. ESTATUTU SOZIALEN ALDAKETA KAPITAL HAZKUNTZAREN ONDORIOZ. 2020IDBO0031

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- Udalbatza Osoak, 2007-02-1ean, Administrazio Kontseiluak proposatuta, kapitala handitzeko erabakia hartu zuen kredituak kantzelatzeke, 449.998,75 €koa eta baita ere onartu zuen Estatutuen 5. artikulua (kapital soziala) aldatzea.

Horren ondorioz:

- *Beasaingo Udalaren partaidetza GOIEKIko kapital sozialean 160.064,33 €koa izatea pasatu zen eta akzio kopurua, 26.633.*
- *GOIEKIko kapital soziala 510.104,76 €tan finkatua geratu zen, partaidetza soziala 84.876koa, partaidetza bakoitza 6,01 €koa izanik.*

2.- 2020-11-26ko plenoan, Administrazio Kontseiluak proposatuta ondorengo erabaki zuen:

- *Kapitala handitzea Sozietateak dituen kredituen kontra lehentasunezko harpidetza eskubideei uko eginez kapital hazkuntza onartzea, hau da, Beasaingo Udalarentzat hazkuntza 27.706,10 €tan finkatzen da eta 4.610 akzio suposatzen dute.*
- *Ekarpen ekonomikoa eginez kapital hazkuntza onartzea. Beasaingo Udalarentzat ekarpen hori 302.597,49 €tan finkatzen da eta 50.349 akzio suposatzen dute.*

3.- *Aipatutako hazkuntzak burutzen direnean, Beasaingo Udalaren partaidetza GOIEKI, S.A.ren kapital sozialean, %31,52koa izango da. Kopurua: 490.367,92 € eta akzio: 81.592.*

4.- *Sozietatea osatzen duten udalerrri guztiek (18) ekarpenak egin ondoren, GOIEKIko kapital soziala, 1.555.670,47 €koa izango da eta akzioak, 258.847 izango dira.*

5.- *Kapitalaren hazkuntzak Estatutuen aldaketa ere dakar, kapital sozialaren artikuluari dagokionean. 2021-03-01ean egindako Administrazio Kontseiluak proposatzen du aipatutako aldaketa onartzea, ondoren 2021-07-01ean Sozietatearen Batzar Orokorrak egingo duen bileran baieztatu ahal izateko.*

Horren ondorioz, Antolakuntza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. *GOIEKI, S.A. sozietatearen estatutuetako 5. artikulua onartzea. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:*

“5. artikulua.- Kapital SOZIALA MILIOI BAT BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI EURO izango da, erabat harpidetuta eta ordainduta. Kapital hori berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpi akziotan zatituta dagoela ulertuko da. Akzio horiek korrelatiboki zenbakituta egongo dira batetik berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpira (1/258.847), biak barne, sei eurotik zero eurora bitarte, eta akzio bakoitza zatiezina izango da. ”

Bigarren. *Erabaki honen berri, GOIEKI, S.A.ri ematea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia aurkeztu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Estatutuen aldaketa hau kapital hazkuntzaren beste pauso bat da. Gai honetaz gain, pendiente dago beste

hausnarketa bat, hau da, GOIEKI zer den, nolakoa izatea nahi dugun, etab. Lanketa bat hasita dago eta eskatzen duguna da eskualde mailan lanketa horrekin jarraitzeko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ados, Julen Mendozaren eskutik GOIEKI lanketa hori egiten ari da, udal ordezkari, eragile, enpresetan bere diagnostikoa egin du eta epe batzuk markatu dira erabakitzeko GOIEKIk zer behar duen eta zein forma juridiko har dezakeen. Ados.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Galdea bat. GOIEKiko aktan irakurri dut Aitor Aldasorok esaten duela plan ekonomikoak ez diola Beasaingo Udalari uzten langileak kontratatzen. Zer esan nahi du horrek, zorra kendu ondoren Beasaingo Udalak langileak kontratatzeko erraztasun handiagoa izango duela?”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Nik uste dut esan nahi duela, ustea besterik ez da, mailegua amortizatzeagatik aukera dago pertsonala gehitzeko, hau da, kontratazioak egin ahal izateko. Nik dakidanez udalarekin zer ikusi zuzena du. Mailegua amortizatzea berak eman dezake pertsonala kontratatzeko aukera baina esango nuke GOIEKIn mailegua amortizatzeak Beasaingo Udalari ez diola aukera hori ematen. Kontrastatu dezakegu eta pertsonal buruarekin ere hori argitu dezakegu.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

d.- BAKE EPAILEA. BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA. 2021IDBO0010

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA: *Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.*

Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiak eskatuta 2021-03-17ko herriko kronikan, 2021eko martxoaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Web orrian, Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamenaren beharra argitaratu zen, lau urtetarako izendatutako Bake Epaile titularra eta ordezkoaren epea amaituta dagoelako. 2021eko apirilaren 30a bitarteko epea eman zen eskaerak aurkezteko eta epe horretan bost eskaera aurkeztu dira, aipatutako karguak betetzeko.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, Alkateak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

- *Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiari Bake Epaile titularra izendatzeko ondorengo andrea proposatzea: GENMA LARRAÑAGA ARBELAITZ.*
- *Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiari Bake Epaile ordezkoa izendatzeko ondorengo jauna proposatzea: JOSE LUIS DIEZ ZURUTUZA.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak aurkeztu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Se propone reelegir a estas personas porque previamente vienen ejerciendo esos cargos. Ya sé que por ley no es obligatorio establecer ningún tipo de criterio, pero si sería positivo acordar algo para saber por qué se propone el nombramiento de una u otra.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ados. Irizpide batzuk markatuta izatea udal bezala ona litzateke. Orain arte jarraitutako bidea hori izan da, hau da, nahi duenak eta bere borondateari bide ematea, baina zerbait adostuta izatea ez legoke gaizki.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Abstenitu egingo gara. Pertsona horiek bere merituak izango dituzte eta ez dugu ezer beraien aurka, baina prozedura ez da egokiena. Ez dugu jakin ere zeintzuk izan diren aurkeztu direnak. Iruditzen zaigu zer hobetzea ba dagoela.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk aurreko bideari jarraitu diogu eta hortik dator proposamen hau.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- MUSIKA ESKOLAKO TASAK. 2021-2022 IKASTURTERAKO TASEN ONARPENA.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

HERRITARREN BATZORDEAREN PROPOSAMENA

GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2021-2022 ikasturtean aplikagarri izango diren tasei onespenera.

Herritarren Batzordeak 2021eko maiatzaren 20an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du **BEASAINGO UDAL LOINATZ MUSIKA ESKOLAK** 2021-2022 ikasturtean irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasei akordio PROPOSAMENA:

AURREKARIAK:

-Loinatz Musika Eskolaren finantzazioa ikasleen aldetik %33era gerturatzearen, martxoko KPI igoera aplikatzea proposatzen da, %1.4ko igoera hain zuzen ere.

LEHENIK. 2021-2022 ikasturtean Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolan emango diren irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasak, hobariak eta baldintzak hasiera batean onartzea. **Tasa hauek aplikatu ahal izango dira hurrengo ikasturteetan baldin eta Udalak aldatzeko erabakirik hartzen ez duen bitartean:**

***TASAK**

2021-2022 IKASTURTEKO TASAK

IKASGAIAK	PROPOSAMENA	
	IKASTURTEKO KOPURUA	Hilabeteroko kopurua
I. MAILA: Musika Tailerra	220,00 €	22,00 € hilabetean
I. MAILA: Hastapena	282,50 €	28,25 € hilabetean
II. MAILA: Instrumentua + Musika Lengoia	747,50 €	74,75 € hilabetean
II. MAILA: Instrumentua / Akonpainamendua / Kantua	560,00 €	56,00 € hilabetean
II. MAILA: M. Lengoia+Pandro / Kantu taldea	555,00 €	55,50 € hilabetean
II. MAILA: M. Lengoia	282,50 €	28,25 € hilabetean
II. MAILA: Trikitixa	482,50 €	48,25 € hilabetean
II. MAILA: Panderoa	350,00 €	35,00 € hilabetean
III. MAILA: Instrumentua + Gai teorikoa	795,00 €	79,50 € hilabetean
III. MAILA: Instrumentua/Akonpainamendua/Kantua/Errefortzu Gaia	590,00 €	59,00 € hilabetean
III. MAILA: Trikitixa	507,50 €	50,75 € hilabetean
III. MAILA: Gai Teorikoak / Informatika	282,50 €	28,25 € hilabetean
IV. MAILA: Pop-Rock taldeak	62,50 €	6,25 € hilabetean
IV. MAILA: Abesbatza	62,50 €	6,25 € hilabetean
3. adineko Musika Tailerra	62,50 €	6,25 € hilabetean
Kantua taldean	260,00 €	26,00 € hilabetean
Piano Akonpainamendua (60')	860,00 €	86,00 € hilabetean
Piano Akonpainamendua + Gai teorikoa	1035,00 €	103,50 € hilabetean
MATERIALA	15,25 €	Abenduan ordainketa bakarra
* bakarka 40'		
IZENEMATEA 2022-2023 ikasturterako	47,25 €	

*HOBARIAK

-Familia partaide kopuruarengatik dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak

2. partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikiaren kopuruko dirulaguntza emango da.

*BALDINTZAK

-Matrikula formalizatzen den urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

-Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetez zaituko da irailetik ekainera bitartean.

BIGARREN. -Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedienteak jendaurrean 30 laneguneguz egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARREN. -Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta argitarapenaren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia aurkeztu dituzte:

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Gu printzipioz ados gaude proposamenarekin baina dirulaguntza aldetik zerbait faltan botatzen dugu eta musika eskolako zuzendariak berak esan zuen pare bat ikasleei finantzatu egin zaiela kostua. Gure proposamena da dirulaguntza lerro bat ateratzea inor geratu ez dadin musika ikasteko aukerarik gabe eta horrek balioko luke aldi berean musika eskola sustatzeko.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Nik esango nuke kasu horietan bai musika eskolara joateko eta baita ere kiroldagiko zerbitzuak erabiltzeko, norbaitek ezin badu ordaindu gizarte ongizatek izaten ditu GLLak edo beste laguntza batzuk inor kanpoan geratu ez dadin."

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Cuando esa necesidad se detecta a través de las trabajadoras sociales del Ayuntamiento, se abona a través de las ayudas de emergencia social. Entedemos que ese es el camino.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Betikoa da. Detektatzeko zain egon orde, gu aurreratu behar gara. Dirua aurreratu behar badut eta ez badakit musika eskolara joateko dirulaguntza daudela, agian musika ikastea izango da lehenik utziko den gauza. Ni ez naiz ari larrialdietako laguntzak behar dituenentzat, baizik eta egoera okerragoan egon daitezkeenak.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Existen todo tipo de servicios y algunos de ellos se consideran necesarios e indispensables para el desarrollo de las personas. Otros no. La musika eskola ya está subvencionada en 2/3 partes. El precio que paga el ciudadano es 2/3 partes inferior al coste real del servicio. Para que una actividad pueda ser subvencionada con el dinero de todos los ciudadanos esa actividad debe ser considerada imprescindible para el correcto desarrollo educativo. Es el criterio que se utiliza para subvencionar el polideportivo durante los meses de verano. ¿Deben de pagar todos los ciudadanos de Beasain el polideportivo de una usuaria todo el año?. La decisión de este pleno fue que no. ¿Deben de pagar todos los ciudadanos de Beasain el coste de que un menor vaya a las piscina en verano porque es un modo de socializar ?. Si que parece un menoscabo. Crear una línea de ayudas para pagar la musika eskola, hoy por hoy, no creo que sea adecuado.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Erabaki egin beharko litzateke zer den ezinbestekoa. Gauza da, badaudela familiak ezin dutenak eta ari gara haur bat gizartaratzeaz.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Detektatzen denean benetan laguntza behar dela, udal honek laguntzen du.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “El mecanismo de detección está permanentemente en marcha.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Aurten dirulaguntzak jasotzeko eskaera gehiago izan da eta hori oso adierazgarria da. Horrek zerbait esan nahi du.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Ha habido un incremento de solicitudes para abono de tasas y muchas son perceptoras de las GLL y a esas se les ha insistido para que soliciten ayudas para pago de tasas.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

b.- LOINATZ EGUNEKO ZENTROA. COVID-19AK ERAGINDA ALDI BATERAKO ITXIERAN EMANDAKO ZERBITZUAGATIK GOXARA S.L.RI ORDAINTZEA. 2016BIBO0028

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

“Gaia: Covid-19ak eraginda Loinatz eguneko zentroa aldi baterako itxieran emandako zerbitzuagatik GOXARA S.L.ri ordaintzea

AURREKARIAK

I.- 2021-04-16. Goxara SLren jakinarazpena, bertan adierazten da Loinatz eguneko zentroa itxita egon dela martxoaren 27tik apirilaren 9ra, biak barne, Osakidetzako epidemiologia-zerbitzuaren gomendioei jarraituz, zentroko erabiltzaile batzuek eta langile batek positibo eman baitzuten Covid-19an.

Jakinarazpen horretan hau aipatzen da:

1.- Zentroa itxi aurretik eta itxita egon den bitartean egindako lanak:

a) Familiei dagokionez: telefono bidezko jarraipen jarraitua, unean-unean jarraitu beharreko prozedura adierazita (garraio-ordutegiak, PCRak eta emaitzak, osasun-egoera eta lasaitasun-mezuak...).

b) Epidemiologia-zerbitzuari dagokionez: erabiltzaileei buruzko informazioa bidaltzea (identifikazio-datuak, burbuila, egindako harremanak, espazioen eta jardueren erabilera...), PCRak egiteko komunikazioa eta horien emaitza.

c) Garraioari dagokionez: garraioa berrantolatzea, bai itxiera-egunean etxera itzultzeko, bai jarduera berriz hasteko, zentroan sar zitezkeen erabiltzaileen arabera.

d) Janari-zerbitzuari dagokionez: ezin izan zen banaketa eten, 48 ordu lehenago jakinarazi behar baita.

e) Diputazioari dagokionez: zentroaren erabiltzaileen egoerari buruzko eguneroko koordinazioa eta dagokion erregistroa Extraneten.

f) Udalari dagokionez: koordinazioa, erabiltzaileen egoerari buruzko informazioa emateko eta etxeetan arreta egokia bermatzeko.

g) Zentroari dagokionez: zentroko gelak, material didaktikoa, erabiltzaileen arropa eta tresna pertsonalak eta abar sakon garbitzea eta desinfektatzea, bai eta burbuiletan funtzionatzeagatik atzeratuta zeuden espedienteak eta lanak eguneratzea ere.

Guztira 8 erabiltzailek eman zuten positibo Covid-19an, eta Goxarako laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak balioetsi zuen lantalde osoak konfinatuta egon behar zuela; beraz, langileak lan-bajan egon ziren martxoaren 29tik apirilaren 5era.

2.- Fakturatzeko proposamena:

Zentroak laneguneko modalitatean 18 pertsona (astelehenetik ostiralera) eta modalitate jarraituan (astelehenetik igandera) 12 lagun artatzeko aukera duenez, Udalari eskatzen

zaio, aipatutako lanak egiteagatik zentroa 14 egunez itxita egon arren, plaza guztien prezioaren % 75ari dagokion ordainketa egin dezala, Udalak Aldunditik plaza erreserbatzeagatik jasotzen duen ehunekoaren berdina.

PROPOSAMENA

Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari honako erabaki-proposamena egiten dio, azter dezan:

Goxara S.L.ri ordaintzea 18 pertsonako plazaren erreserbaren % 75ari dagokion zenbatekoa, laneguneko modalitatean (astelehenetik ostiralera) eta 12 pertsonakoa modalitate jarraituan (astelehenetik igandera), Loinatz eguneko zentroa itxita egon den aldian (martxoaren 27tik apirilaren 9ra, biak barne), Goxara S.L.k dagokion faktura aurkeztu ondoren.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak aurkeztu dituzte:

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk batzordeak azaldu genuen gure kezka. Faltan somatzen dugu balorazio ekonomikoa. Ez dakigu dirutan zenbat den. Esan zitzaigun ez dela beharrezkoa idazkaritza edo kontuhartzailtzako txostena izatea, baina lehen abstenitu egin ginen bezala oraingoan ere bai. Izan ere ez zaigu garbi gelditzen plaza erreserbagatik eskatzen dena. Azaldu zitzaigun 20.000,00 € inguru direla baina ez horren justifikaziorik.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Yo creo que quedo explicado en comisión. Cuando hay una sustitución de servicio, surge una reserva de plaza. Diputación establece que esas plazas no pueden ser ocupadas por otros usuarios. Es la cantidad de dinero que paga Diputación, ya que la totalidad del servicio lo abona esta entidad. Esos catorce días tienen un precio diferente, dependiendo si son laborables o festivos y se dijo cuál era la cantidad aproximada porque Diputación todavía no había hecho el cálculo.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- DIRULAGUNTZAK. BEASAINGO IRABAZI-ASMORIK GABEKO IKASTETXEEK IRAKASKUNTZA ARAUTUAREN ESPARRUAN EGITEN DITUZTEN JARDUERA, PROGRAMA ETA PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2021BOBE001

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bozeramaileekin komentatu dut eta proposatzen dudana da puntu hau mahai gainean uztea.

Arrazoia: duela urte batzuetatik hona ikastetxeek dirulaguntza lortzeko aurkeztu zituzten gastuetan aldaketa bat egon behar du, kontutan izan da gure eskumeneren arabera, zeintzuk izan litezkeen diruz lagundu daitezken proiektuak. Horren ondotik ere

beste aldaketa bat suertatu da oinarriak ateratzeko prozesu honetan. Batzordean aurkeztu genituen oinarriak, baina konturatu gara beharbada ikastetxeekin, beraiek gertu sentitu nahian, beraiek elkartu behar dugula aldaketa guzti hau berri emateko. Iruditzen zait hobe dela pauso bat atzera ematea, naiz eta hona ekarri ikasturtea bukatzera doalako eta lehenbailehen dirulaguntzak emateko, baina beraiekin lanketa bat egin behar dugu eta oinarri hauek hobetu behar baditugu, hobetzeko. Mahai gainean uzteko, bozkatu egin beharko genuke.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da puntua mahai gainean uztea.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gure aldetik, esker ona azaltzen dugu.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Iruditzen zaigu egokia dela atzera pausoa, 2018tik dirurik jaso gabe daudenean. Interesatuekin egotea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Kreditu aldeketetan 72.000,00 €ko dirulaguntza lerroa ba zegoen. Hor amaituko da dirulaguntza hori?”

Alkate andreak (EAJ-PNV): 72.000,00 € jarri dira orain arte nominatiboki eman behar zitzaizen dirulaguntza kopuru horretara iristen zelako. Kopurua gehitu beharko bagenu ez dut uste arazorik egongo denik. Ikuskizun.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): 2018., 2019. eta 2020. urteetako jaso ez dituzten dirulaguntza nominatibo horiek emango zaizkie?.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gustatuko litzaiuke baina ez dut uste posible izango denik. Hemendik aurrera gure eskumenekoak direnak sustatzeko proiektuak izan behar dira. Gertatzen dena da, hauen gastua ez dela hainbestekoa orain arte aurkeztutako gastuekin konparatuta.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hori beraiekin argitu behar da. Haserre daude agindutakoa ez dutelako jasoko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Jakitun gara.”

d.- BALDINTZA PLEGUAK ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA ONDORENGOA KONTRATATZEKO: GIZARTE ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA. 2021BIBO0007

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, aipatutako zerbitzua kontratatzeke baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

- 1.- *Prozedura*: irekia eta harmonizatua publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.
- 2.- *Izapidetzea*: arrunta
- 3.- *Lizitazio prezioa urteko*: 241.441,48 € BEZ gabe
- 4.- *Egikaritze epea*: 2 urte eta bi luzapen urtebetekoak
- 5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa*::

Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzailaren jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen

aurkezpen daten arabera, 362,162,22 euro izango da gutxienez. Zenbateko hori 87.3.a artikulua 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.

6.- Kaudimen teknikoak:

a) Gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak, zehazki kontratuaren xede direnen antzekoak. Zehaztu behar dira lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua).

Kontratazio organoak emandako zerbitzuei dagozkion egiaztagiria eska ditzake SPKL2017ren 90. artikulua dioena jarraituz.

Egindako zerbitzu edo lan nagusiak, kontratuaren xede direnen antzekoak diren ala ez jakin ahal izateko, ezaugarri koadro honetako 2. epigrafean adierazitako CPV kodigoak dira kontuan izan beharrekoak.

b) Kontrata gauzatzera atxikitako pertsonen honako titulazio hauek dituztela egiaztatzea:

1.- Zerbitzuen koordinatzailea

- Gizarte eta Giza Zientziekin lotutako diziplinaren batean diplomatura, gradua edo lizentziatura izan beharko du.

2.- Psikologo-psikoterapeuta

- Psikologiako graduaren edo lizentziaren jabe izatea
- Psikologoaren Elkargo Ofizialean kolegiatua egotea

3.-Hezitzaileak

- Gizarte hezkuntzan diplomatura edo gradua eduki beharko dute edo Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialaren gaitasun-agiria gizarte hezitzaile moduan edo Gizarte Lanetan diplomatura edo gradua edukitzea.

Kontrata gauzatzeko ardura duten pertsonen, hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila eduki beharko dute.

c) Enpresa kontratistak pertsona bat gutxienez izendatuko du koordinatzaile tekniko edo arduradun, eta haren bidez helaraziko zaio Beasaingo Udaleri enpresa kontratistaren langileek kontratuaren xedeari lotuta egin nahi duten edozein komunikazio. Honi ere hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea eskatuko zaio.

Hizkuntza gaitasuna bi modu hauetako baten bidez egiaztatuko da:

- Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzaren Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maileki parekateko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak arautzen dituen titulu eta ziurtagirak.
- Edozein Euskaltegi homologatutako emandako agiria.

d) Enpresak aurkeztu beharko du kontratua exekutatu behar duen langilegoen adingabekoekin lana egiteko aurrekari penalen ziurtagiria, edo eta kontratua formalizatu baina lehen aurkezteko konpromisoa.

7.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* Hogeita hamabost egun natural, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

8.- *Adjudikazio irizpideak:*

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Txosten teknikoa: 47

Kualifikazioa eta esperientzia: 3

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plica irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzaleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- *Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:*

- Emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.

- Langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa.

- Lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea.

- Kontratuak bete beharko du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK.

a.- BALDINTZA PLEGUAK ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA ONDORENGO ZERBITZUA KONTRATATZEKO: BEASAINGO UDALERRIKO PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA BIDE-ZUHAIZTIAK MANTENDU, ZAINDU ETA HOBETZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA. BERTAN PARTE HARTZEA ENPLEGU-ZENTRO BEREZIENTZAT ETA GIZARTERATZE-ENPRESA ARAUTUENTZAT GORDETAKOA. 2021ZEBO0046

Ezagutzera eman da Lurralde batzordearen proposamena, aipatutako zerbitzua kontratatzeke baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- *Prozedura:* irekia eta harmonizatua publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa urteko:* 363.905,45 BEZ gabe

4.- *Egikaritze epea:* 4 urte eta luzapen bat

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa::*

Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzaillearen jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, $363.905,45 \times 1,5 = 545.858,17$ €, izango da gutxienez (zenbateko berdina edo handiagoa). Zenbateko hori 87.3.a artikulua 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.

6.- Kaudimen teknikoa:

a) Azken hiru urteetan zehar egindako lan eta zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, kontratu honen xedea osatzen duten zerbitzu edo lanen antzekoak. Gutxienez 254.733,81 €-ko zenbatekora (kontratuaren urteko batez bestekoaren % 70) iritsi beharko du zenbatekoak urterik onenean, eta behar bezala azalduko dira zenbatekoak, datak eta lan edo zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua.

Zerbitzu bat kontratuaren xedea den izaera bereko edo antzekoa den zehazteko, ezaugarrien koadro honetako 2. atalean adierazitako CPV koderara jo beharko da.

b) Baldintza teknikoaren 5.2 artikuluan adierazten den basozaintza, nekazaritza, biologia, lorezaintza edo paisaiako teknikari tituludun bat identifikatzea; titulurik ez badu, parkeak eta lorategiak zaintzen eskarmentua edo prestakuntza duela egiaztatu beharko du. Hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izan beharko du, ahozko trebetasunean

Hizkuntza gaitasuna karatula honetako 14. atalean adierazitako moduan egiaztatuko da.

Lizitatzaillearen idatzizko konpromisoa onartuko da, kontratua esleitu aurretik, teknikoa identifikatzeko eta aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

7.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* Hogeita hamabost egun natural, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

8.- Adjudikazio irizpideak:

Balorazio automatikoa:

- Urteko eskaintza: 45 puntu.

- Baldintza Teknikoaren 2.1 eranskinean jasotako materialen eta lan berezien horniduraren kostua: 7 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Zerbitzu-proposamena: 20

Zerbitzuaren zuzendaritza eta euskarria: 14

Ibilgailuak, makinak: 10

Kontrol sistemak: 4

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:

- - Enpresak bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko neurriak eskaini beharko dizkie langileei.
- Enpresak lantokian prestakuntza bultzatu beharko du.
- Kontratazio berriak egin behar badira, lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko dira.
- BTAREN 13. artikuluan adierazitako ingurumen-baldintzak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

PREMIAZKO PUNTUA

BEASAINGO UDALERRRIAN ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETA-ZERBITZUA ETA COVID-19 PANDEMIA EGOERAREKIN LOTUTAKO ERREFORTZU-GARBIKETEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTUTA. 2021ZEBO0023

Ondorengoa proposatu da:

Lehenik. Ondorengo zerbitzuak kontratatze lizitazioa bertan behera uztea: Beasaingo udalerrian eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua eta Covid-19 pandemia egoerarekin lotutako errefortzu-garbiketen zerbitzua, baldintza plegu teknikoaren 3,7 artikulua egun indarrean dagoenaren araudiaren aurka doalako. (2021ZEBO0023 espedientea, kontratazio plataforman 2021-05-10ean argitaratutakoa),

Bigarren. Erabaki honen berri ematea, Euskadiko plataforma publikoan argitaratuz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

5.- BERRI EMATEA:

- 2021eko maiatzaren 3tik 23rarte emandako Ebazpenak.

2021eko maiatzaren 3tik 23rarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Ezagutzera eman dira aipatutako Ebazpenen zerrendak

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

ARRIARANGO ESKOLA ERAIKINA

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) azalpena eskatu du, B21/0769 zenbakia duen Ebazpenari.

Ebazpena ezagutzera eman da, hau da:

“Gaia: Arriarango Eskola izenez ezagutzen den eraikinerako etxebizitza-erabilera.

AURREKARIAK

1.- 2020-06-17. Luis-María Querejeta Ayerbe jaunak “Promociones y desarrollos Querejeta, S.L.”ren ordean, Udal hirigintza-plangintza egokitzeko eskatu zuen, Arriarango eskolak etxebizitza gisa erabiltzeko birgaitzea edo berreraikitzea ahalbidetzeko.

2.- Lehendik dagoen eraikina duen lurzatia ez dago hiri-lurzoruan eta bertan ez dago finkatuta eraikin gisa.

3.- Egindako eskaerari erantzuteko, Udaleko arkitekto aholkulariak txostena egin zuen. Bertan adierazten denez, lurzoru urbanizaezinean dagoen eraikin finkatua da, eta lehendik ere badago legez ezarritako bizitegi-erabilera (irakaslearentzako etxebizitza), eta, ondorioz, baimena eman daiteke erabilera horretarako birgaitzeko (ez berreraikitzeko), eta jatorrizko eraikinaren oinplanoa eta bolumena mantendu behar dira.

4.- Hala ere, 2021-03-25eko osoko bilkuran, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenerako irizpideak eta eragozpenak onartzeko erabakian, ezetsi egin zen aurkeztutako iradokizuna, ez baitzen sartu, axolagabekeriaz, idazketa-taldeak egindako aldeko azken txostena.

5.- Horren ondorioz, kontraesana dago Udaleko arkitekto aholkulariak egindako txostenaren eta Udalbatzak hartutako erabakiaren artean, eta hori zuzendu egin behar da Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onespeneraren erabakian.

6.- Eraikinaren egungo titularrak, jabetza eskualdatze aldera, sortutako nahasmena argitzeko erantzun bat eskatu du.

Alkatetza honek, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak erabiliz eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21, 1b) artikulua, kontuan izanda, ondorengo

EBATZI DU

Lehena.- 2007ko Arau Subsidiarioak indarrean sartu baino lehen Arriarango Eskola Zaharren eraikina bazegoela eta finkatuta zegoela adieraztea. Etxebizitza gisa erabili ahal izango da, nahiz eta lurzoru urbanizaezinean egon, eta, beraz, birgaitu egin ahal izango da (ez da berreraikitiko), jatorrizko eraikinaren oinplanoa eta bolumena mantenduz.

Ondasunen udal-inbentarioaren arabera, eraikinak 185 m²-ko azalera du, BS+I+PBC profila eta 370 m²-ko azalera eraikia.

Bigarrena. Hori guztia, segurtasun juridikoaren mesedetan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onespenerari buruzko erabakian aipatutako zehaztapenak adieraztearen kalterik gabe, 2021-03-025eko osoko bilkuran egindako akatsa zuzendu ahal izateko.

EGUNKARIETAN IRAGARKI OFIZIALAK ARGITARATZEA

Iragarki ofizialak zein egunkarietara bidaltzen diren argitaratzeko, Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu), egindako galderari, erantzun zaio esanez, legez egunkarian argitaratu beharreko iragarkientzat Udalak erabakita duela, gatzelaniaz “Diario Vasco” egunkarian argitaratzea (probintziak gehien zirkulatzen duen egunkaria, hain zuzen ere) eta euskaraz Berria egunkarian.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta hamabostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.